



Usurbilgo Udala



## 2015EKO EKAINAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Garcia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko ekainaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

Alkateak gai-zerrendari heldu aurretik adierazi du gaurko bilkura udala egituratzeko eta antolatzeko plenoa izango dela.

### 1.- 2015EKO EKAINAREN 13KO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2015eko ekainaren 13ko akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala



## **2.- OHIKO UDALBATZA PLENOKO ORDUA ZEHAZTEA.**

Usurbilgo Arautegi Organikoaren 9. artikuluan ohiko plenoen maiztasuna finkatua dago, hileroko, hileko azkeneko asteartetan. Gaurkoa, beraz, ohiko bilkura da. Maiztasuna aldatzea ez da oraingoz planteatzen (horretarako Udal Arautegi Organikoa aldatu beharko litzateke lehenengo).

Ordua finkatzea, berriz, alkatearen eskumena da. Oraingoz, orain arte moduan, ohiko bilkurak arratsaldeko seietan izango dira.

## **3.- BATZORDE INFORMATZAILEEN KOPURUA, IZENA ETA OSAKETA.**

Alkateak proposamenari buruzko azalpenak eman ditu. Hamar batzorde iraunkor proposatzen dituzte eta kopuru hori bat datorrela adierazi du beraiek ikusten dituzten lan ildoekin.

Batzorde bakoitzeko kide kopuruari dagokionean, bost izatea proposatzen dute. Horretarako bi irizpide hartu direla kontutan, batetik, udal taldeen proportzionaltasun irizpidea eta, bestetik, udal talde guztiek presentzia izatea.

Jarraian, batzordeen izenak aipatu ditu.

Lehen aipatu duen moduan bost kidez osatuko lirateke batzordeak, EH Bilduk 3 kide izango lituzke, eta EAJ-PNVk eta PSE-EEk kide bana.

Hitza eman die gainerako alderdiei, baina inork ez du hitza hartu.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute. Honela dio erabakiak:

### **“ERABAKIA**

#### **Batzorde Informatzaileen kopurua eta izena:**

1. Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia
2. Hezkuntza eta Garapena
3. Nekazaritza eta Ingurunea
4. Hirigintza
5. Zerbitzuak eta Obrak
6. Kultura, Euskara eta Gazteria
7. Pertsonala
8. Parekidetasuna eta Aniztasuna
9. Osasun eta Gizarte Zerbitzuak
10. Kirola



Usurbilgo Udala



### **Osaketa:**

Batzorde Informatzaileak 5 kidez osaturik egongo dira eta talde politiko bakoitzak honako ordezkariak izango du:

EH Bildu: 3 kide

EAJ-PNV: kide 1

PSE-EE (PSOE): kide 1”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

### **4.- ZINEGOTZI LIBERATUEN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIA.**

Alkateak proposamenak jasotzen dituen atalak banan banan azaldu ditu.

Alkatearen ordainsariari buruzko zehaztasunak eman ditu esanez bera administrazio publikotik datorrela, irakaskuntzatik hain zuzen ere, eta irizpidea izan dela lehendik zerkarren soldatari eustea. Beraz, lanpostu aldaketak ez diola ordainsari gehiago emango azpimarratu du, izatekotan zerbait gutxiago.

Lehenengo eta bigarren alkateordeen ordainsariei dagokienean, udal honetako ordain-erregimenen arabera, 13. mailan kokatzen direla esan du. Hemen aldaketa bat bada-goela esan du. 13. maila administrari baten mailan kokatzen dela esan du eta alkateorde izaera horrek dakarren lana, ardura eta karga badela dio 13. maila izateko adina-koa.

c) atalean aipatzen dela esan du Alaitz Aizpuruaren eta Jone Urdanpilletaren dedikazio eta ordainsari hauek eragina izango dutela 2015eko ekainaren 14tik aurrera, hau da, pasatako data batetik. Bi hauek aurreko legegaldian ere dedikazio osoko liberazioa zuten eta hori legegaldia bukatzearekin batera bukatu zitzairen, eta hau horrela egingo ez bagenu tarte hau ordainsaririk jaso gabe geratuko lirateke eta errealitatea da biek ala biek beraien lana egiten jarraitu dutela.

Bere kasuan aurreko lanpostuan eszedentzia eskatua duenez uztailaren 1etik aurrera, data horretatik aurrerako eragina izango du hemengo dedikazio eta ordainsariak.

Jarraian, hitza eman die gainerako alderdiei.



Usurbilgo Udala



Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du beraien ustez proposamen hau partziala dela, zeren hemen aipatzen dena da soilik hiru liberazioen kasua, aldiz, ez dira aipatzen dietak eta gainerako alderdi politikoek zer kobratuko duten. Bestalde, EH Bilduk 8 zinegotzi dituela eta beraiak 4, eta beraien kasuan liberazioena ere ikusi beharko litza-tekeela adierazi du.

Alkateak erantzun dio egia dela dieten gaia ez dela pleno honetan tratatzen, oker ez badago ez daudela behartuta esan du pleno honetan egitera. Hala ere, hurrengo pleno batera eramango duten gai bat dela zehaztu du eta horri buruz hitz egingo dutela esan du.

Josune Urkolak adierazi du oposizio txukun bat egin ahal izateko horrek dedikazio bat eskatzen duela.

Alaitz Aizpuruak puntualizatu du Josunek aipatu duen bezala erabaki partzial bat dela, zeren bai baitago beste zati bat non zehazten diren alderdiei eta zinegotziei dagozkien asignazioak eta dietak. Aurreko legegintzaldian behintzat aurretik Ogasun batzordetik pasa izan dituztela zehaztu du, bertan diktaminatu eta ondoren plenora eramateko. Kasu honetan ere erabakiak atzera eragina izango lukeela zehaztu du.

Josune Urkolak erantzun dio alde horretatik ulertzen diola, baina kontua dela hau bozkatu egin behar dutela eta beste zatia nola izango den ez dakitela.

Alkateak galdetu dio ea iruditzen zaien hemen onartuko diren puntuak bestearen menpekoak diren.

Josune Urkolak erantzun dio kontutan harturik EH Bilduk 8 zinegotzirekin 3 liberazio oso izatea proposatzen dutela eta aurreko legealdian ordaintzen ziren dieta berdinak kobratu behar badituzte talde politiko bezala, pixka bat deskonpentsatua iruditzen zaie-la.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio bi gauza ezberdin direla. Batetik dira dedikazio eta liberazioak eta bestetik dira talde politiko eta zinegotziei dagozkien dotazioak eta dietak. Txukunagoa iruditu zaiela esan du egin duten moduan egitea, hau da, beste zatia Ogasun batzordean diktaminatzea eta ondorengo pleno batetara eramatea.



Usurbilgo Udala



Josune Urkolak erantzun dio oposizioak ere dedikazioa eskatzen duela eta proposamen honetan beraien dedikazioa ez dela bistan agertzen salatu du. Beraiek dena osotasun batean planteatzen dutela errepikatu du.

Alkateak adierazi du gero ere aukera izango dela beste gai horietaz hitz egiteko. Beraien ustez duten gobernu arduragatik hiru liberazio hauek behar dituzte, gainera uste dute horrek ez duela inola ere baldintzatzen aurrera begira oposizioa egiteko egon daitezkeen beharren arabera, eta zer esanik ez dieta eta horrelakoetarako markatu daitezkeen kopuruak, batak ez duela bestea kentzen dio. Egindako bileren ondoren, gobernu ardura erabat asumitu dute eta horrek baliabideak jartzera behartzen dituztela esan du, tartean giza baliabideak, eta aurreko legealdian bezala, oraingoan ere hiru pertsonen lan osoa behar dutela ikusten dute. Alde horretatik hori ez dute kuestionatuta ikusten, besteari dagokionez hitz egingo dutela adierazi du, eta ikusiko dutela dio akordiotara iristeko zenbaterainoko gai diren.

Beraz, hau mahai gainean uztea ez duela proposatuko esan du, gainera iruditzen zaio gai hau bai dela gaurko antolaketa plenoan finkatu beharrekoa.

Idazkariak ohartarazi du legeak soldatak mugatzen dituen moduan, liberazioak ere mugatzen dituela. Biztanle kopurua kontutan hartuta, gehienez hiru liberazio oso izan daitezkeela puntualizatu du eta partzialak, berriz, ez dituela mugatzen.

Josune Urkolak adierazi du beraiek soldatekin ez direla sartzen, beraien helburua EUDELen tauletara iristea dela gaineratu du.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea udaletxe honetan beti egon diren hiru pertsona liberatuta.

Alkateak erantzun dio aurreko legealdian hiru egon zirela liberazio osoarekin, hala ere, ez direla beti hiru egon gaineratu du.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du hiru ere gehiegi iruditzen zaiola.

Alkateak adierazi du gai hori, beraz, landu egin behar dela, orduan puntu hori pendiente geratzen da, baina hemen proposatzen dena bozkatzera proposatzen du.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

**“a) Dedikazio osoa izango duten karguak.**



Usurbilgo Udala



Dedikazio osoa izango duten karguak alkatea, 1. alkateordea eta 2. alkateordea izango dira.

**b) Zinegotzi liberatuen dedikazioa eta ordainsaria.**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

Dedikazioa: Osoa.

Ordainsaria: Usurbilgo Udalean onarturik dauden ordain-erregimenen arabera, 19 eta 20. mailen artean (45.000 € gordin + 9 hirurteko).

**1. alkateordea:** Alaitz Aizpurua Labaka.

Dedikazioa: Osoa.

Ordainsaria: Usurbilgo Udalean onarturik dauden ordain-erregimenen arabera, 13. maila.

**2. alkateordea:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Dedikazioa: Osoa.

Ordainsaria: Usurbilgo Udalean onarturik dauden ordain-erregimenen arabera, 13. maila.

**c)** Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilletaren kasuan dedikazio eta ordainsariak 2015eko ekainaren 14tik aurrerako eragina izango dute eta Xabier Arregiren kasuan 2015eko uztailaren 1etik aurrerako eragina.

**d)** Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.5 atalean xedatutakoaren baitan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan erabaki hauek argitara ematea.

**e)** Udal kontu-hartzaileari erabaki honen berri ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

**5.- UDAL ORDEZKARITZA BESTE ORGANO ETA ERAKUNDEETAN.**

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du erakundeetako batzuk ez dituela ezagutzen, zehazki galdetu du UEMA eta Behemendigatik.



Usurbilgo Udala



Alkateak erantzun dio UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, Euskal Herri osoko mankomunitate bat dela eta bere izateko helburua izaera euskalduna duten udalerrietan udal jarduera euskaraz egitea eta euskararen erabilpena sustatzea eta bermatzea dela. Bestalde, UEMA sortu zela aipatu du ikusi zelako bazirela izatez euskaldun izaera zuten herriak, baina orduko administrazioan inertiagatik edo ohiturengatik erdera nagusi zela, bai udal barruko lanketan eta bai kanpora begirakoan ere, eta horri nobelabait buelta emateko sortu zela. Horren adibidea Usurbil dela zehaztu du.

Behemendiri buruz adierazi du bere zeregina dela 1. sektoreko aktibitatea sustatzea.

Josune Urkolak adierazi du beraiek aurkako botoa emango dutela. Gaineratu du UEMAn parte hartzeko aukera eman zitzaiela, eta erantzun zutela momentuz ezetz, baina era berean, beste guztietan parte hartzeko aukerarik ez zaiela eman adierazi du.

Alkateak erantzun dio zehaztasunetara ez zirela iritsi ez baitzekiten zer nolako jarrera zuten. Hala ere, bai komentatu ziela dio gobernu arduraren bat hartu nahi bazuten EAJkoek, irekitasun osoa zutela beraien proposamenak entzuteko. Ez dutenez proposamen zehatzik jaso, ulertu dutela dio, eskubide osoz eta errespetu osoz, nahiago zuzutela horrelako arduretatik kanpo egon.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta honako erabakia hartu dute gehiengoz:

<b>Erakundea</b>	<b>Ordezkarriak</b>	<b>Ordezkoak</b>
UEMA	Xuban Zubiria Alaitz Aizpurua Xabier Arregi Josune Estella	Jone Urdanpilleta (Xubanen ordezkoa) Irene Garcia (Alaitzen ordezkoa) Iñaki Ugarte (Xabierren ordezkoa) Joxe Mari Iribar (Josuneren ordezkoa)
EUDEL	Jone Urdanpilleta	Alaitz Aizpurua Xabier Arregi
EUSKAL FONDOA	Xuban Zubiria	Alaitz Aizpurua Xabier Arregi
KONTSEILU ESKOLARRAK	Josune Estella	Alaitz Aizpurua Xabier Arregi
BEHEMENDI	Joxe Mari Iribar	Jone Urdanpilleta Irene Garcia
AÑARBE MANKOMUNITATEA	Jone Urdanpilleta	Joxe Mari Iribar Xabier Arregi
SANMARKO MANKOMUNITATEA	Irene Garcia Xabier Arregi	Jone Urdanpilleta Alaitz Aizpurua



Usurbilgo Udala



GARBITANIA	Xabier Arregi	Jone Urdanpilleta Irene Garcia
UDALBILTZA	Xabier Arregi	Alaitz Aizpurua

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## 6.- ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA:

### 6.1.- 2015/0592 DEKRETUA: TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEEN IZENDAPENA.

Batzarkideei 2015/0592 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira:

“Esp.zk.: ID.02/2015-0263

## DEKRETUA

**XABIER ARREGI IPARRAGIRRE**, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.b) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, eta aipatu 7/1985 Legearen 23.1 artikulua, Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Legearen 41.3 eta 52.1 eta 2 artikuluek eta Udal Erregelamendu Organikoaren 5. artikulua diotenaren arabera, honako hau

### XEDATZEN DUT

**LEHENA:** Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea honako hauek:

- Alaitz Aizpurua Labaka
- Jone Urdanpilleta Urdanpilleta





Usurbilgo Udala



-Irene Garcia Palacios  
-Josune Estella Arranz

Guztiak udal honetan ordezkaritza duen EH Bildu talde politikoko kideak, indarreko arautegiak ematen dizkien eskuduntza eta prerrogatiba guztiekin.

**BIGARRENA:** Xedapen honen berri zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara eman dadila.

**HIRUGARRENA:** Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu-Liburuan transkribatuko da, eta bere dataren hurrengo eguneko eragina izango du.”

## 6.2.- 2015/0593 DEKRETUA: ALKATEORDEEN IZENDAPENA.

Batzarkideei 2015/0593 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira:

“Esp.zk.: ID.02/2015-0262

### DEKRETUA

**XABIER ARREGI IPARRAGIRRE**, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jaubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.a) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkion eskumenak erabiliz, eta aipatu 7/1985 Legearen 21.2 eta 23.3 artikuluek, Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Legearen 41.3 eta 46. artikuluek eta Udal Erregelamendu Organikoaren 4. artikulua diotenaren arabera, honako hau

### XEDATZEN DUT

**LEHENA:** Usurbilgo Udaleko alkateordeak hurrenez hurren izendatzea, Udal honetan ordezkaritza duen EH Bildu talde politikoko kideak, indarreko arautegiak ematen dizkien eskuduntza eta prerrogatiba guztiekin:

- Lehen alkateordea: Alaitz Aizpurua Labaka
- Bigarren alkateordea: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta

**BIGARRENA:** Xedapen honen berri zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara ematea.

**HIRUGARRENA:** Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu-Liburuan transkribatuko da, eta bere dataren hurrengo egunetik eragina izango du.”



Usurbilgo Udala



### 6.3.- 2015/0594 DEKRETUA: ALKATEAREN HAINBAT ESKUDUNTZEN ESKUORDETZEA.

Batzarkideei 2015/0594 dekretuaren berri eman zaie eta jakinarene gainean geratu dira:

“Esp.zk.:ID.02/2015-0270

## DEKRETUA

**XABIER ARREGI IPARRAGIRRE**, Usurbilgo udaleko Alkate-Lehendakariak, Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 23.4 artikuluek eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 43.3 artikulua ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, aipaturiko Erregelamenduko 114 eta hurrengo artikuluetan eta Administrazio-Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 13. artikuluan xedaturikoa kontutan harturik, honako hau

### ERABAKI DUT

**LEHENIK.-** Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta lehenengo alkateordea den **ALAITZ AIZPURUA LABAKA** zinegotziaren esku uztea bere jarduera eremua Ogasunari dagokionean zuzendu eta kudeatzeko eskurantzak orokorra. Hauexek dira, zehazkiago esanda, eskuordetze orokor honetan haren esku utzitako eskurantzak:

1. Delegazioaren ordezkariak eremuan, alkatea eta Udala ordezkatzeko, alkatea ez dagoenean.
2. Delegazioaren ordezkariak eremuan, Udalbatzarraren Osoko bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren eguneko aztergai-zerrendetan sartzeko gaiak alkateari proposatzea.
3. Bere ordezkariak eremuaren barne, ordenantzak, erregelamenduak eta udal akordioak argitaratu, bete eta bete daitezzen agintzea.
4. Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.
5. Dagokion eremuaren egituraketa eta antolaketaren proposamena egitea alkateari.
6. Zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea eta baimentzea delegazio eremuari atxikitakoak direnean, beti ere honako irizpideak kontutan harturik:
  - Edozein iniziatiba hartu ahal izateko, aurrekontuetan behar adinako zuzkidura izan behar du.
  - Aurrekontuaren errekurtsio arruntetik %5a gainditzen ez dutenean
  - Erabakitako gastuaz informatua izango du alkatea.
7. Bere eremuko gaitan era guztietako diru-laguntzak eskatzea.



Usurbilgo Udala



8. Dagokion eremuko Aurrekontuen aurreproiektua garaiz prestatzea, finkaturiko epeetan Udalak onartu ahal ditzan.
9. Eskuordetutako eremuari loturiko baliabide fisiko eta giza baliabide guztiak sustatu, koordinatu eta kontrolatzea, udal helburuak hobeto bete ahal izateko.
10. Udalaren izenean zerbitzuak eta, bere kasuan, hornidurak zuzendu, sustatu eta ikuskatzea, eskuordetutako jarduera esparruaren barnean erabaki direnean.
11. Diru-laguntzak eta zerbitzuak ematea, dagokion arloan.
12. Bere lan eremuaren barne sortzen diren gai arrunt eta tramitezko guztiak kudeatzea, erabakiak hartuz.
13. Delegazio eremuari dagokionean aurrekontuaren errekurso arruntetik %5a gainditzen ez duten zerbitzu eta horniduren kontratazioa, beti ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren jarraibideak errespetatuz.

**BIGARREN.-** Ogasun arloari dagokionean ondorengo eskurantzak ez dira eskuordetuak ulertuko eta, beraz, alkatearen esku geratzen direla ulertuko da: kreditu eragiketak hitzartzea eta faktura zerrendak onartzea.

**HIRUGARREN.-** Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta bigarren alkateordea den **JONE URDAMPILLETA URDAMPILLETA** zinegotziaren esku uztea zigor-jardunbideari hasiera ematea udalaren eskumeneko edozein arlotan eta instrukzio organoa izendatzea, zigor-jardunbidea ebazteko organo eskuduna alkatea izango delarik.

**LAUGARREN.-** Erabakitako delegazioen erregimen juridikoa honako hau izango da:

1. Alkateari dagokio zinegotzi delegatuen jarduera koordinatzea eta haien arteko eskumen arazoak ebaztea.
2. Ordezkaritzaren eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskuduntzak eta bere titularrak ezingo ditu beste zinegotzi edo organoren esku utzi.
3. Zinegotzi delegatuak alkateari erabilitako eskuduntzen berri emango dio. Horrela, zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.
4. Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.
5. Ordezkaritzak ez du epe mugarik, eta iraungo du ezeztatu arte, alkatetza honek bere agintaldia amaitu arte edo zinegotzi delegatuak espresuki bere karguari uko egin arte.



Usurbilgo Udala



Alkatetza honek eskuduntza emate hau aldatu edota ezeztatu ahal izango du, hala irizten dionean. Alkateak eskuordetutako eskumena edozein unetan bereganatu ahal izango du, egokitzat hartzen duen zabaltasunez. Ekintza administratiboak ofizioz berrikusteko aurreikusitako moduan berrikusi ahal izango dira eskuordetutako agintariak emaniko ebazpenak.

6. Zinegotzi delegatuak bere eskumen eremuko gaietaz emandako ebazpen administratiboen testuan agertu behar da ebazpenak delegazioz emanak direla eta delegatu gabeko gaietaz emandako ebazpenen balio bera izango dute.

7. Zinegotzi delegatuak emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Kasu guztietan, Alkate-Lehendakariak ebatziko ditu aipaturiko errekurtsoak.

8. Zinegotzi delegatua ez dagoenean, ordezkaritza eman gabe dagoenean, gaixorik dagoenean edo aritzeko beste edozein ezintasun duenean, alkatetza honek, eskuduntzen jatorrizko titularrak den aldetik, bere gain hartuko ditu, zuzenean eta automatikoki, delegatutako eskuduntzak. Ondorio hauetarako, ulertu behar da eskuduntzak berreskuratzeko eskubidea erabili duela Alkatetza honek, Dekretu honetan oinarriturik, hartarako berariaz ebazpenik eman gabe.

**BOSGARREN.-** Dagokion zinegotziei Dekretu honen berri emango zaie, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotziek onartu dutela ulertuko da, dekretu hau jakinarazi eta hurrengo hiru eguneko epean ez badute ezer adierazten haren kontra.

**SEIGARREN.-** Osoko Bilkurari dekretu honen berri emango zaio haren lehenengo bilkuran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Udaletxeko Iragarki Taulan jarriko da.

**ZAZPIGARREN.-** Dekretu hau Alkatezaren Ebazpenen eta Dekretuen Liburuan transkribatuko da eta indarrean sartuko da bosgarren atalean xedaturiko epean.”

## 7.- UDAL TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei, udal talde politikoaren eraketaren berri eman zaie:

“Esp.zk.: ID.02/2015-0247

Alkatetza honi zuzendutako idatzien arabera, Usurbilgo Udalean udal talde politiko hauek eratu dira:

### **EH BILDU udal talde politikoa**

Xabier Arregi Iparragirre (bozeramalea)  
Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe



Usurbilgo Udala



Jone Urdanpilleta Urdanpilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Garcia Palacios  
Josune Estella Arranz  
Joxe Mari Iribar Zapirain

### **Usurbilgo EAJ-PNV udal talde politikoa**

Josune Urkola Larrarte (bozeramalea)  
Mirari Azurmendi Sorazu (ordezko bozeramalea)  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Pérez Fraisoli

### **Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal talde politikoa**

Fermin Orue-Echevarria Iturri (bozeramalea)''

## **8.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.**

Galdera-eskaeren tartean, Josune Urkolak adierazi du aurreko batean komentatu zuten bezala bulegoaren aldaketa eskatu nahi zutela.

Alkateak erantzun dio asmoa badutela toki egokiago eta handiago bat izan dezaten. Hala ere, gaineratu du dauden lokalen azaleragatik eta izaeragatik beharbada aldaketa bat egingo dela.

Amaitzeko, alkateak jakinarazi die gainontzeko batzarkideei oraindik garaiz daudela nahi badute jaietako dantza saiorako.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:35ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**